

EHU

Memoria 2024-2025

Euskal Herriko Unibertsitatea/
Universidad del País Vasco

Bizkaiko Campusa



EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO


BIZKAIKO CAMPUSA

MEMORIA 2024/2025

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	5
1. GOBERNANTZA ETA CAMPUSEKO HARREMANAK.....	14
1.1. Gobernantza eredua, bilerak eta partehartzea.....	15
1.2. Hitzarmenak eta akordioak.....	16
2. BIZKAIKO CAMPUSEKO AZPIEGITURA ETA GARAPENA	22
2.1. SARRERA	23
2.2. Jarduera ildo nagusiak	23
2.3. Egindako beste jarduera batzuk	25
3. IKASLEEN, EUSKARA ETA KULTURAKO ZUZENDARITZA	28
3.1. Sarrera	29
3.2. Kultura programazioa (EHUkultura).....	31
4. ONGIZATE ETA JASANGARRITASUN ZUZENDARITZA	33
4.1. Helburu nagusiak	34
4.2. Jarduera ildo nagusiak	34
5 EKINTZAILETZA, ENPLEGAGARRITASUN ETA TRANSFERENTZIAKO ZUZENDARITZA	39
5.1. Helburu nagusiak	40
5.2. Jarduera ildo nagusiak	41
5.2.1. Ekintzailetza-jarduera	41

5.2.2. Enplegarritasuna	45
6. ESPERIENTZIA GELAK	51
6.1. Sarrera	52
6.2. Datu akademikoak eta matrikula-datuak	52
6.3. Proiektuaren garapen estrategikoa	53
6.4. Jarduera extraakademikoak	55
7. Miguel Unamuno Ikastetxe Nagusia	56
8. BIZKAIA ARETOA	59



AURKEZPENA

Etapa berri oro urrats zehatzekin hasten da, bere denbora behar dutenak, lehen zimenduak jartzen dituztelako egitura sendo eta iraunkor bat eraiki aurretik. Memoria hau Errektoretza taldearekin eta Euskal Herriko Unibertsitateko Bizkaiko Campuseko zuzendaritza berriarekin egindako lehena da. Beraz, abiapuntu bat da, kontuak emateko eta gure campusaren etorkizuna elkarrekin eraikitzeko konpromisotik abiatzen den abiapuntua.

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiegu etengabeko konpromiso eta lanarengatik campuseko zuzendaritzei, alor tenkikoko eta administrazioko langileei, bai eta dekanotza-taldeei, ikasle-taldeei eta, oro har, unibertsitate-kolektibo guztiei bide honetan eskainitako laguntzagatik ere. Izen ere, bakoitzak bere esparrutik campusaren kudeaketa bultzatzen dute, eta kudeaketa hori, batzuetan konplexua izan arren, beti da atsegina eta aberasgarria unibertsitateko bizitzarako. Erronka handiko garaia ere izan

da, Pertsonal Teknikoko, Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako (TEKAZEL) mila langile baino gehiagoren mugimendua markatutakoa, LEPAren eta egonkortzeplazak eskuratzearen ondorioz. Prozesu horretan, bereziki eskertu nahi diogu komunitateari bere pazientzia eta lankidetza.

Aurreko ekintza-plana trantsiziozko plana izan zen, hilabete gutxi batzuetako ibilbide laburra izan baitzuen. Orain, ikuspegi zabalagoarekin, egindakoa aztertu eta Bizkaiko Campuseko bizitza akademiko, ikertzaile eta sozialari jarraipena, koherenzia eta egonkortasuna emango dion proiektu bat finkatu nahi dugu. Orain arte egindako bidean gure apustua argia izan da da: ikastegi eta zentroekiko komunikazioa hurbilekoa izatea eta, batetik, sortzen diren beharrei azkar erantzunez, eta bestetik, partaidetzan oinarritutako kudeaketa-eredu batean aurrera egitea, dekanoak, sailetako zuzendaritzak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, irakasleak eta, bereziki, gure ikasleak modu errealean implikatuko dituena. Ildo horretan, bilerak egin dira kolektibo guztiak implikatzeko ikasle-mugimendu desberdinak deitutako greben segurtasun-dispositiboaren antolaketan, bai eta gaua igarotzeko eskaeren kudeaketa partekatuan ere, agente guztiak entzunda eta kontuan hartuta. Ikasle-kolektiboekin aldian behin egiten diren bilerak areagotu egin dira, entzute aktiboa eta haien premiei laguntza indartuz, eta, aldi berean, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeekin gertuko harreman telematikoa eta fisikoa izan da. Era berean, partaidetza sustatzeko eta kide izatearen sentimendua indartzeko helburuarekin, EHUP! Jaia, ikasleek ikasleentzat antolatu eta kudeatutako ospakizuna. Hurrengo edizioetan beste bi campusetan egingo da, berriro Bizkaira itzuli aurretik.

Erakundeekiko harremanari dagokion arloan, zenbait Bizkaiko funtsezko eragileekin bilera erronda egin da. Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiarekin, Bilboko Udalarekin eta Leioako Udalarekin loturak indartu dira, proiektu estrategikoetan lankidetza sendotzeko. Era berean, EHU Lau haizeetara programari jarraipena emateko plan bat

diseinatu da, unibertsitatearen balioak Bizkaiko eskualde guzietara hurbiltzeko eta unibertsitate aurreko ikasleen orientazioa indartzeko.

Bestalde, azpiegituren eta campusaren garapenaren arloan, 2024/25 ikasturtean aurrera egin da eraikinak eta zerbitzuak pixkanaka hobetzen, gabeziak konpontzeko, segurtasuna indartzeko eta espazioak irakaskuntza- eta ikerketa-premia berrietara egokitzeko moldaketekin. Aurreko Azpiegiturak Mantentzeko Plan bereziak (PPEMI gisa ezagutua) ez zuen betetzen segurtasunaren ikuspegitik ezinbestekoak diren obretatik eratorritako kostea, eta, horregatik, aparteko finantzaketa-konpromiso bat negoziatu eta lortu da Eusko Jaurlaritzarekin, batez ere Leioako Campusean zentratua. Jarduera garrantzitsuenen artean, honako hauek nabamentzen dira: Errektoretzaren eta Gelategien plataformak eraisteko eta berrurbanizatzeko proiektua, Liburutegi Nagusiaren estalkia eta fatxada birgaitzea eta Errektoretzan eta Zientzia eta Teknologian eguzkitakoak konpontzea. Esku-hartze horiek, energia eta espazioak egokitzeko beste hobekuntza batzuekin batera, unibertsitate-ingurunearen iraunkortasuna, irisgarritasuna eta kalitatea indartzen dituzte.

Era berean, Errektoreordetzak hainbat lagunza-deialdi bultzatzen jarraitu du, parte-hartze handia izan dutenak. Landa-praktikak, hitzaldiak, jardunaldiak eta unibertsitate-hedapeneko jarduerak egiteko laguntzei esker, ehunka ekimen finantzatu ahal izan dira. Geologiako Graduko landa-praktikak berariaz babestu dira, eta campuseko langileentzako bidaia-poltsen deialdia kudeatu da. Gainera, 2025eko urtarilean irakaskuntza-azpiegituren ohiko deialdia egin zen, eta guztira 789.103,10 euro esleitu ziren fakultate eta eskola desberdinen artean. Horrek agerian uzten du campusak bere ikastetxeen premia akademikoei eta pedagogikoei erantzuteko ahalegina egiten duela.

Horrekin batera, unibertsitate-komunitatea proiektu estrategikoetan inplikatzen laguntzeko neurriak jarri dira abian. Adibide on bat Mikel Laboa Plazaren eraldaketa da. Plaza horren berpentsatzea Arte Ederren Fakultateak zuzentzen du, eta espazio komunitario eta parte-hartzaile gisa gizarte-ehuna indartzea, inklusioa sustatzea duen eta talde-sormena bultzatzea ditu helburu. Era berean, campusa berritzeko lanen esparruan, aipamen berezia merezi du EHuko ikerketa-talde espezializatu batekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin campuseko faunaren babesaren inguruan izandako lankidetzak. Hormigoizko egiturak eraisteko lanetan, *Pipistrellus kuhlii* espezieko saguzarren babeslekuak identifikatu ziren, bereziki sentikorrap umatze-garaian. Kontserbazioa bermatzeko, obrek ukitzen ez dituzten hurbileko egituretara lekualdatzeko plan bat diseinatu zen, babes-baldintzak errepikatuz eta gune zaharrak itxi aurretik alerik ez zegoela ziurtatuz. Aldundiak baliozkotutako protokolo horri esker, obrak biodibertsitatea zaintzearekin bateratu ahal izan dira, campuseko ingurumen-konpromisoa indartuz.

Era berean, nabarmenzekoa da Bilbon Odontologiako Gizarte Klinika ezarri izana. Udalarekin lankidetzan, beste mugarri bat da gure Bilboko hiriaren presentzian, kokapen berria La Panera dorre modernoan aurkitu baita. Horrela, klinikak eraldaketa kualitatibo eta kuantitatiboa izango du, aho-hortzen osasunaren esparruan irakaskunza-, ikerkunza- eta gizarte-funtzioa sendotzera bideratua. Etapa berri honetan, apustuak hiru ardatz ditu: Euskadiko aho-hortzen osasunaren erronkei erantzutea, kolektibo kalteberei arreta berezia eskainiz; ikerketari lotutako irakaskunza berritzaire eta kooperatiboa bultzatzea; eta iraunkortasunean aurrera egitea, baliabideen erabilera arduratsuaren eta GJHekiko eta EHAgenda 2030ekiko konpromisoaren bidez. Proiektu honek bat egiten du Basurtuko Medikuntza eta Erizaintza Fakultate berriaren garapenarekin, unibertsitateak prestakunza- eta osasun-arloan hirian duen erreferentzialtasuna zabaltzen duen funtsezko azpiegitura baita.

Ongizatearen eta iraunkortasunaren esparruan, mugikortasun iraunkorrarekin, ongizatearekin eta osasunarekin lotutako jarduera-agenda zabala sustatzen jarraitu dugu. Europako Mugikortasunaren Astea dela-eta, garraio alternatiboak ikusarazteko lan egin da, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean. Era berean, azpiegituren erabilera indartzeko ahalegina egin da, hala nola dutxak eta bizikleten aparkalekuak, garraio-ohitura osasungarriagoak erraztuz. Kirol-arloan, lehiaketak, naturako programak, eskola espezializatuak eta dibulgazio-jarduerak garatu dira, eta partaidetza-zifra oso handiak lortu dira. Kirolaren Astea, Athletic Club edo Bilbao Basket bezalako erakundeen laguntzarekin antolatua, Tipi Tapa martxa eta Ikasketa Olinpikoen Zentroaren sendotzea campus osasungarri eta inklusiboaren eredu modu irmoan bultzatzen duen zuzendaritzaren adibide batzuk besterik ez dira. Gainera, aurrera egin da, beste campusekin koordinatuta, Zaintza eta Arreta Integraleko Zerbitzua diseinatzen. Zerbitzu horren pilotua Arabako Campusean jarriko da abian, gainerakoetara zabaldu aurretik. Era berean, etorkizuneko Mugikortasun Plana diseinatzen hasi gara, datozen urteetarako ildo estrategikoak zehatztuko dituena.

Ikasle, Euskara eta Kultura Zuzendaritzak kultur programazio anitza eta kalitatezkoa diseinatu du, UPV/EHUREn nortasunarekin lerrokatua eta arreta berezia jarriz ikasleen parte-hartzeari eta euskararen sustapenari. Nobedade nagusien artean, lehenengo Kultura Beken deialdia nabarmentzen da, ikasturte honen hasieran abiatuko dena eta datorren udaberrian Udaberri Kulturala jaialdia antolatzea ahalbidetuko duena. Horrekin batera, Sormen Ola tailerrak egin dira, euskal artistek hainbat fakultatetan emanak, sorkuntza egunerokora hurbiltzeko helburuarekin. Era berean, ikasleek garatutako proiektu artistikoak babestu dira, eta irakasleekin eta zerbitzuetako langileekin baterako ekimenak bultzatu dira, hala nola Euskaraldian parte hartzea edo zenbait erakusketa. Zuzendaritzak, gainera, lankidetza indartu du erreferentziazko kultura-erakundeekin, besteak beste, Film Sozialak, Caostica, OLBE Bilbao Opera, Zinecittà, JA! edo Loraldia jaialdiekin. Horri esker, lankidetza- eta proiekzio-bide berriak ireki ahal izan dira. Era berean, BEST, Bizkaiko Emakume Sortzaileen Topaketa, lehen

aldiz egingo da Bizkaia Aretoan, EHUKulturarekin lankidetzan. Azkenik, datorren ikasturtean Leioako Campusean ospatuko den Kultura Egunaren diseinuan lan egin da, kultur programazioari ikusgarritasuna emateko eta EHUKultura marka bultzatzeko helburu bikoitzarekin, campusen arteko koordinazioa eta Errektoreordetzarekiko sare-lana indartuz.

Bestalde, Ekintzailetzari, Enpleguari eta Transferentziari dagokienez, Zitek inkubagailuak indartu dira Portugaleten, Leioan eta Bilbon, baita hainbat ikastetxetako ekintzaileta-gelak ere, oinarri teknologikoko enpresak sortzeko eta proiektu berritzaileak garatzeko laguntza integrala eskainiz. Ekin 48, Think Big lehiaketa edo Ikasberri programa bezalako erreferentziazko programak martxan jarri dira, Bizkaiko ekosistema ekintzailearen erakunde eta elkarteeikiko harremanen sarea sendotzeaz gain. Aldi berean, zuzendaritzak Bizkaiko Enplegu Foroa bultzatu du. Foro horretan 90 enpresak baino gehiagok eta ia 200 lan-eskaintzek parte hartu zuten. Eta, era berean, ekimenak koordinatu ziren Lanbiderekin, Bizkaia Talentekin edo praktiken nazioarteko programekin, hala nola Global Training-ekin. Horrela, esparru egonkor bat sortu da, unibertsitatea eta enpresa-sarea lotzen dituena, ikasleen enplegagarritasuna errazten duena eta Bizkaiko Campuseko ikertzaile potentziala agerian uzten duena.

Esperientzia Gelak garrantzi handiko hezkuntza- eta kultura-proiektu gisa agertzen zaizkigu beste behin ere, plaza-eskaera handiarekin (220 aurreinskripzio 80 plazetarako) eta 496 matrikularekin. 59 irakasgai eman dira eta 56 irakaslek parte hartu dute. Ikastetxeak bere izaera inklusiboa indartu du lehentasunezko sarbide-kupoen eta Bizkaiagara-rekiko lankidetzaren bidez, ikasleen ekimen autogestionatuak babestu ditu eta unibertsitate-komunitateari eta hirugarren sektoreari irekitako espazio gisa duen eginkizuna sendotu du. Belaunaldien arteko ikuspegiari, erakundeen arteko lankidetzari eta komunikazioaren hobekuntzari buruzko hausnarketa ere bultzatu du, Errektoreordetzaren laguntzarekin. Eremu digitalean, aurrera egin da matrikula-prozesuen modernizazioan eta ikasleen gaikuntza teknologikoan, tailer praktikoen

bidez. Eskaintza akademikoa ikasgai humanistiko eta sozial berriekin zabaldu da, Unibertsitate Tituluan plazarik ez duten pertsonentzat ere irekita daudenak. Gainera, programazio kultural eta komunitario bizia hedatu da irteerekin, hitzaldiekin, zineforumarekin, antzerki sozialarekin, abesbatzaren emanaldiekin eta erakusketekin, Gelen nortasuna bizaldi osoko ikaskuntzarako gune gisa indartuz, inklusiboa, parte-hartzailea eta gizartearekin konektatua.


Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusiak aurrera egiten jarraitu du unibertsitate-egoitza parte-hartzaile, iraunkor eta irekia gisa. Ikasturte honetan, ikasle egoiliarrekin entzuteko prozesu bat jarri da abian, espazio komunetan hobekuntzak eta ekimen ekosozial berriak diseinatzeko. Kultura-programaziona indartu egin da zinema-jaialdiekin eta Kultura Zientifikoko Katedrarekin egindako hitzarmenekin, bai eta gaikako erakusketekin eta osasunari, nutrizioari, berdintasunari eta aniztasunari buruzko hitzaldiekin ere. Ongizatearen eta osasun mentalaren arloko neurri espezifikoak ere bultzatu dira, ikasleekin batera diseinatutako hitzaldien eta jardueren bidez. Horrek guztiak, Campuseko Errektoreordetzarekin eta Bizkaibusekin mugikortasuna hobetzeko koordinazioarekin batera, ikastetxe nagusiak komunitate aktibo, inklusibo eta ingurunean eragiteko gaitasun gisa duen zeregina indartzen du.

Azkenik, Bizkaia Aretoak 600 ekitaldi eta 65.000 parte-hartzaile baino gehiago hartu ditu, eta Bizkaiko egoitza kultural eta akademiko nagusietako bat dela berretsi du. Horien artean, nazioarteko kongresuak, jardunaldi zientifikoak, udako ikastaroak eta UPV/EHUREn ekitaldi instituzionalak nabarmentzen dira. Eraikinak hiriko kultur bizitzan ere parte hartu du, Gau Zuria, Open House Bilbao edo Bilboko Kalealdia ekimenen bitartez, eta Arte Ederren Museoa edo JA! bezalako jaialdi eta kultur eragileekin lankidetzan aritu da. Horrek guztiak espazio ireki eta dinamiko gisa sendotzen du Bizkaia Aretoa, unibertsitatearen proiekzio sozial, kultural eta zientifikoa indartzen duena.

Bide hori prozesu kolektibo gisa ulertzen dugu; horregatik, funtsezkoa da campuseko zuzendaritzen lana aitortzea, unibertsitate-eredu iraunkor, berritzaire eta ireki bat eratzen modu erabakigarrian laguntzen jarraitzen baitute. Oro har, jarduera horiek agerian uzten dute Bizkaiko Campusean garatutako ekimenen aniztasuna eta irismena. Izan ere, Campusak erreferentziazko gune gisa hazten jarraitzen du iraunkortasunari, berrikuntzari, transferentziari, etengabeko prestakuntzari, unibertsitate-bizitzari eta gizarte-konpromisoari dagokienez.

Estitxu Garai Artetxe

Bizkaiko Campuseko eta Komunikazioko errektoreordea



1.

GOBERNANTZA ETA CAMPUS-EKO HARREMANAK

1 GOBERNANTZA ETA CAMPUSEKO HARREMANAK

1.1. Gobernantza-eredua, bilerak eta parte-hartzea

- Campuseko batzarraren araudiaren azterketa abian jarri da, parte-hartzea errazteko eta arintzeko.
- Hilero bilerak egiten hasi gara Bizkaiko campuseko ikastegietako zuzendaritzataldeekin, ikastegi horien beharrak eta arazoak zuzenean ezagutzeko, eta campuseko errektoreordetzairekin eta gainerako gobernu-taldearekin koordinatzeko.
- Bilerak egin dira Bizkaiko Campuseko TEKAZELekin, beharrak baloratzeko eta langileen zaintza orokorrean hobekuntzak ezartzeko.
- Campusean dauden ikasle-elkarteekin bilerak egin dira.
- Bilerak egin dira dekano, dekano eta zuzendariekin campusaren kudeaketari ekiteko, batez ere segurtasunari dagokionez.
- Era berean, bilerak egin dira ikastetxeetako ikasleekin eta zuzendaritzekin, ikuspegi desberdinatik edo gatazkatsuetatik etor daitezkeen gaiei buruz kolektiboen arteko entzute aktiboa eta elkarguneak sustatzeko.
- Ikastetxeetako zuzendaritzekin etengabeko harremanak izateko bide telematikoak eta banakako bilerak erabiltzen dira, beharrezkoa den kasuetan.

- Ohiko 3 campus-batzar eta ezohiko batzar bat egin dira. Era berean, campuseko batzarreko 10 batzorde iraunkor egin dira, hitzarmenen izapideztea eta onarpena arintzeko.
- Bilerak egin dira Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Bilboko Udalarekin eta Leioako Udalarekin, bai eta hainbat eragile eta elkarterekin ere, hala nola Bilbao Metropoli 30, Asociación Española Contra el Cancer, talde ekologistak, Bizkaiko Psikologia Elkargoa eta Bizkaia Gara, besteak beste.
- Ikasturte honetan egin da EHUP! Jaia, ikasleek kudeatutako jai gisa sortutako ekimena da, baina, batez ere, ikasleak bere burua antolatzeko ariketa gisa, eta bere gain hartu zuten erantzukizun zuzena jardunaldiaren diseinuan, kudeaketan eta garapenean. Jaia ez zen soilik ekitaldi ludiko bat izan, baizik eta aukera bat campuseko kide izatearen sentimendua indartzeko eta gure ikasleen sormen- eta antolaketa-gaitasuna ikusarazteko. Prestaketa-prozesuak, lankidetzak, erantzunkidetasunak eta grinak egun polit bat aurrera eramatea ahalbidetu zuten, denboran sendotu, etorkizuneko edizioetan hazi eta unibertsitateko gainerako campusetara hedatu nahi den oinarria ereinda, berriro Bizkaira itzuli aurretik.

1.2. Hitzamenak eta akordioak

2024-2025 ikasturtean 34 lankidetza-hitzarmen sinatu dira Bizkaiko Campusean. Batzarraren Batzorde Iraunkorrik onartutako hitzarmen eta akordio horiek honakoak dira:

2024ko irailaren 20an:

- “Zahartze osasuntsua eta bizi kalitatea” gaiari buruzko ikerketa proiektu bat garatzeko den Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Babesten taldearen arteko lankidetza hitzarmena.

- Ikas-ekinezko erregimeneko prestakuntza dualeko proiektuak garatzeko den Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta CIFP Barakaldo LHII Ikastetxearen arteko hitzarmena.
- UPV/EHU eta University of Cincinnati-ren (EEUU) arteko hitzarmena.

2024ko urriaren 14an:

- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen eta "Universitario Bilbao Rugby" klubaren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena.
- "Movistar Plus+ Bideoteka" plataforma dauden ikus-entzunezko ekoizpenak ikerketarako kontsultatzeko den, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Telefónica audiovisual digital SLUren arteko lankidetza hitzarmena.
- UPV/EHUn ikasten duten nazioarteko babesaren eskatzaile edota onuradun diren ikasleei ostatua diruz laguntzeko den eta Bilboko Udalaren aurrekontuetan aurreikusita dagoen izendun dirulaguntza bideratzeko den Bilboko Udalaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetza hitzarmena.

2024ko azaroaren 14an:

- The National Institute for Agricultural Research, Food and Environment (Institut national de recherche pour l'agriculture, l'alimentation et l'environnement), l'Université de Pau et des Pays de l'Adour, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea eta Scimabio interface-ren arteko lankidetzarako eta ikerketarako hitzarmena.

2024ko abenduaren 18an:

- Lankidetza hitzarmena, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Universidad de País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen artekoa, "Open Data Bizkaia" datak dituzten kazetaritza, komunikazio eta ikerketa-jarduerak garatzeko.
- Bilboko Ingeniaritza Eskolan UPV/EHU-Iberdrola gela sortu eta mantentzeko den UPV/EHUREn eta Iberdrolaren arteko hitzarmena
- Santurtziko Udalaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatearen arteko lankidetza-hitzarmena.
- Ikasleen praktiketarako den llernaren eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko Hitzarmena.

2024ko abenduaren 23an:

- 2024ko Udal aurrekontuan aurreikusitako diru lagunza izenduna bideratzeko den, inmigrazioaren tokiko behatokia programa garatzeko 2024. urtean, Bilboko Udalaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmena.

2025eko otsailaren 17an:

- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Igerco Centros Gerontológicos artekoa "Zahartze osasuntsua eta bizi Kalitatea" gaiari buruzko ikerketa proiektu bat garatzeko den lankidetza hitzarmena.

2025eko martxoaren 12an:

- Katalanaren markaren azterketa egiteko den, Kataluniako Generalitatearen Kultura Sailaren, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren eta Euskal herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) arteko lankidetza hitzarmena.

- Rural Kutxaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko enpresalankidetzarako hitzarmena.
- EIA21 enpresaren eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (Arte Ederren Fakultatea) arteko lankidetza-hitzarmena.
- Laukizko Udalaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (Arte Ederren Fakultatea) arteko lankidetza-hitzarmena.

2025eko martxoaren 12an:

- ZITEK enpreta mintegiak proiektua garatzeko den, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmena.
- Kanpoko langileak UPV/EHUn aritzekoa den, Fundació Institut de recerca del Hospital de la Santa Creu I Sant Pau-ren eta UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko biokimika eta biología molekularra Sailaren arteko lankidetza-hitzarmena.
- Ainhoa Alonso Paravilla andreak CIC bioGUNEn ikerketa egonaldi bat egitekoa den, UPV/EHUreren eta CIC bioGUNEreren arteko hitzarmena.

2025eko apirilaren 9an:

- 5G FRMCS pilotua MIMBRES PPPP inguramenduan hedatzeko den, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Metro Bilbaoren arteko lankidetza akordioa.
- “Aula espazio-gela” unibertsitate-enpreta gela mantentzeko den, UPV/EHUreren eta ZENIALABS AUTOMATION INTELLIGENCE-ren arteko hitzarmena.
- “Aula espazio-gela” unibertsitate-enpreta gela mantentzeko den, UPV/EHUreren eta IDOM-ren arteko hitzarmena.

- “Aula espazio-gela” unibertsitate-enpresa gela mantentzeko den, UPV/EHUREn eta SATALANTIS MICROSATS S.A -ren arteko hitzarmena.
- Lanbide-heziketako irakaskuntzak enpresa edo erakunde parekatuetan prestatzeko fasea egiteko den, CCC lanbide-heziketako ikastetxearen eta UPV/EHUREn arteko hitzarmena.
- María Larrinaga Ruiz andreak CIC bioGUNEn EGITEKOA ikerketa egonaldi bat egitekoa den, UPV/EHUREn eta CIC bioGUNERen arteko hitzarmena.

2025eko maiatzaren 21ean:

- Euskal Herriko Unibertsitatearen (Zientzia eta Teknologia Fakultatea) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena, alga toxiko bentonikoen jarraipena egiteko.
- Hezkuntza lankidetzarako hitzarmena, Valentziako Unibertsitatearen eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (Zientzia eta Teknologia Fakultatea) artekoa, kanpoko praktikak egiteko.
- Hezkuntza lankidetzarako hitzarmena, unibertsitate ikasleen kanpoko praktika akademikoetarako Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (Zientzia eta Teknologia Fakultatea) eta Nafarroko Unibertsitaearen artekoa.

- Leioako Udalaren eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetza hitzarmena ariketa fisikoari eta minbiziari buruzko ikerketa proiektua egiteko.

2025eko maiatzaren 23an:

- Berariazko hitzarmena, Leioako Udalak, Euskal herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak eta Leioako ostalaritza eskolak sinatutakoa, ekitaldi sortzaile-gastronomikoa egiteko.

2025eko ekainaren 30ean:

- Lankidetzarako hitzarmen espezifika Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Ekuadorreko Unibertsitate Katoliko Pontificiaren artean.
- "Esteban Terradas" Teknika aeroespazialeko Institutu Nazionalaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (Zientzia eta Teknologia Fakultatea) arteko kanpoko praktika akademikoak, gradu eta master amaierako lanak (GRAL/MAL) edo doktorego egonaldiak egiteko hitzarmena.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen eta San Vicente Mártir Valentziako Unibertsitate Katolikoaren arteko kanpoko praktika akademikoetarako hezkuntza lankidetzarako hitzarmena.

2025eko uztailaren 30ean:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmena, 2025ean Familia Enpresaren Katedra garatu eta mantentzeko.

2.

**BIZKAIKO
CAMPUSEKO
AZPIEGITURA ETA
GARAPENA**

2. BIZKAIKO CAMPUSEKO AZPIEGITURA ETA CAMPUSAREN GARAPENA

2.1. Sarrera

Zuzendaritza honen helburu nagusia da Bizkaiko Campusean egin beharreko obra guztiak Campuseko Gerentziaordetzarekin batera kudeatzea, bertako espazioen erabileraren antolamendua, egokitzapena eta irakaskuntza-azpiegituraren zuzkidura.

Ildo horretan, 2024/25 ikasturtean hainbat jarduketa egin dira Campuseko azpiegiturak hobetzeko, eraikinetan dauden gabeziak pixkanaka konpontzeko, indarrean dauden araudiak betetzeari dagokionez eta laborategiak jartzeko, segurtasuna hobetuz, espazioak egokituz eta abar. Gainera, amaitutako obren jarraipena ere egin da.

Era berean, Basurtuko Medikuntza eta Erizaintzako Fakultateko eraikin berriko obrak jarraitu dira Planifikazio eta Azpiegituren Gerenteordetzarekin elkarlanean.

Era berean, UPV/EHUri oro har eta Bizkaiko Campusari bereziki balio erantsia eman diezaioketen organismo eta erakundeekin hitzarmenak abian jarri eta garatu nahi.

2.2. Jarduera ildo nagusiak

Taula honetan, 2024-25 ikasturtean egindako jarduera nagusiak laburbiltzen dira.

Jarduera	Egoera, 2025ko irailean
6/24 PA EIB I-eko B eraikineko estalkia era-berritzeko obra	Jasotze akta: 16/5/2025
7/24 PAS Sarrikoko Enpresa Ekonomia Fakultateko liburutegi-eraikinaren fatxada birgaitzea	Jasotze akta: 2/06/2025
42/24 PA Elkanoko Enpresa eta Ekonomiako eraikineko estalkia birgaitzea.	Jasotze akta: 15/05/2025
27/25 PA Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusian aerotermia-sistema bat jartzea.	Egiten.
Bizkaiko Campuseko Leioa/Erandio eremuko unibertsitate kiroldegian plaka fotovoltaikoak jartzea.	Lizitatu gabe.
Berokuntza banatzeko sistema berritzea, emari aldakorreko ponpak azpiestazioetan instalatuz, bero-konsumoa optimizatzeko.	Egiten
25/25 PA Leioa-Erandio eremuko Errektoretza eta Gelategietako eraiste eta espazio berriak urbanizateko obrak.	Esleitutako obra. Hasteko zain (urria 2025)
109/24 PA Zientzia eta Teknologia Fakultateko inguratzaila birgaitzeko projektua idaztea	Egiten

Igogailuak hainbat eraikinetan indarrean dagoen araudira egokitzea.	Errektoreta Eraikinean eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Sarriko) egina
Beira berritza EIB-Iren fatxadan.	Eginda
Sabai-leihoa konpontza I. ikasgelategian	Eginda
Fatxadako sutearen ondoriozko frisoa konpontza (Esperientzia Gelak)	Eginda
Mikel Laboa plazaren berritze lanak.	Partzialki eginda.
Creación de Aulas y adecuaciones diversas en la Facultad de Medicina y Enfermería	Egiten

2.3. Egindako beste jarduera batzuk

Aurreko urteetan bezala, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak landa praktiketarako laguntzen bi deialdi kudeatu ditu.

Otsailaren 4an, hitzaldiak, jardunaldiak eta unibertsitate hedakuntzako beste jarduera batzuk egiteko deialdia egin zen, 2019. urteko ekimenak bultzatzeko.

Hurrengo taulan, 2018/19 ikasturteari dagozkion deialdien zenbakizko datuak ikus daitezke.

Deialdia	Aurkeztutako eskaerak	Onartutako eskaerak	Emandako zenbatekoak
Landa praktikak	197	194	72752.15€
Hitzaldiak eta jardunaldiak	174	174	107879.44€

Eskatutako landa praktikez gainera, Geologiako Graduaren landa praktikak finantzatu dira, 35501.95 euroko aurrekontu batekin.

Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza kudeatu du, halaber, campusari atxikitako langileen bidaia poltsen deialdia. Guztira, 2024/2024 ikasturtean, 22 eskaera jaso dira, webgunetik guztiak, eta horietatik 8 onartu dira.

2025ko urtarrilean, irakaskuntza azpiegiturarekiko ohiko deialdia egin zen, eta deialdiaren erabakia ikastegi guztiei jakinarazi zitzaien, 2025ko apirilean. Hurrengo taulan, ikastegi bakoitzari emandako zenbatekoak jaso dira.

IKASTEGIA	Emandakoa
ZUZENBIDE FAKULTATEA – BIZKAIKO ATALA	11222,44
ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA	149 000,00
ARTE EDERREN FAKULTATEA	142 780,45
EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA	109 627,52

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAK.	86269,10
MEDIKUNTZA ETA ERIZAINTZA FAK.	***
BILBOKO INGENIARITZA ESK.	237 300,63
BILBOKO HEZKUNTZA FAK.	48 287,06
LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA UE	4615,90
GUZTIRA	789 103,10

3.

**IKASLEEN
EUSKARA ETA
KULTURAKO
ZUZENDARITZA**

3. IKASLEEN, EUSKARA ETA KULTURAKO ZUZENDARITZA

3.1. Sarrera

Bizkaiko Campuseko Ikasleen, Euskara eta Kulturako Zuzendaritzak kalitatezko kultur eskaintza diseinatu du aurtengo ikasturterako. Horretarako, EHUren irudiarekin bat datozen ekintzak diseinatu ditu, bereziki ikasleen parte hartzea eta euskararen nagusitasuna jomuga izango dituztenak. eta ordutik gure jarduera guztien gidari izan da. Norabide horretan, ikasleentzako espresuki sortutako Kultura Bekak jarri dira martxan lehenengo aldiz, apirila eta maiatza bitartean, EHUKo Bizkaiko Campusetako ikasleen (gradu, master zein doktoretza ikasleak) komunitatearen sorkuntzekin, Udaberri Kulturala izeneko jaialdia antolatzeko asmoz. Orain arte kultura jarduera gehienak Bizkaia Aretoan egin dira, baina kultura ikasleei hurbilarazteko ahaleginean, ekintza kulturalak Leioako Campusean, Sarrikon eta San Mameseko espazioetara eramango dira, Bilboko Bizkaia Aretoak bere kultur programazioa. Horrek aukera ematen du unibertsitateko kide guztieta hurbiltzeko.

Gainera, unibertsitateko kideek sortutako edukiei balioa emateko asmoz, Bizkaiko Campuseko ikastegietan ikasleek garatzen dituzten proiektu artistikoak babestu, sustatu eta aipatu espazioetan programatuko dira. Alegia, EHUK sortzen duen sorkunza propioa gizarteratzea eta gure ekarpen propioa balioan jartzeari da gure helburu nagusietako bat. Bide berean, ikasleekin bakarrik ez eta irakasleekin eta langileekin batera garatutako proiektuak ere sustatu dira, hala nola, Euskaraldian izandako parte-hartzea edota 8 emakume. 8 istorio. Egia deseroso bat osasun arloko erakusketa, Medikuntza Fakultateko irakasleriarekin batera antolatua.

Horrez gain, EHUK Euskal Herrian dagoeneko sustraituta dauden bestelako erakundeekin dituen lankidetza hitzarmenak indartu eta erakunde eta elkarrekin hitzarmen berriak sortze du xede. Alde horretatik, lankidetza hitzarmenak luzatu dira KCD-ONGD Film Sozialak erakundearekin –Bilboko dokumentalen eta film laburren Nazioarteko Jaialdia–, Caistica jaialdiarekin –22. Edizioaren EHUKultura-Caosticaren saria banatu da–, ABAO Bilbao operarekin –aurten ikasleentzako hitzaldiak ere prestatuko dituena, Zinecittàrekin Zinema italiar garaikidearen zikloa Bilbon, JA! Jaialdiarekin, Bilboko Udalarekin dagoen lankidetzari esker eta Gabriel Aresti katedraren sorrera sustatzeko Foru Aldundiarekin dagoen harremanak ere aurrera jarraitzen du. Gainera, Bilboko Udalarekin dagoen harremana estutuko da kulturaren eta euskararen arloko proiektuetan lankidetzan aritzeko Eider Inunciaga Bilboko Udaleko zinegotziari eta Marijo Arrieta Euskarako zuzendariarekin batera. Gainera, lehenengo aldiz ospatuko da BEST jaialdia Bizkaiko Emakume Sortzaileen Topaketa Bizkaia Aretoan EHUK Kultura-Bizkaiarekin elkarlanean.

Halaber, Loraldia erakundearekin, euskal artea eta kultura zabaltzea xede duena, hitzarmen berria sortu da zeinaren bitartez elkarlanerako bide berriak irekiko diren, EHUKultura i3, Loraldia Festibala eta Loraldia Eskola babesteko aukerarekin. Horrekin batera, Sormen Ola tailerrak Leioako Campusera eramango dira urria, azaroa, otsaila eta martxoko hilabeteetan. Aurten hitzartu diren tailerrekin literatura, arte eszenikoak, zinema eta musika jorratuko dituzte, Uxue Alberdi eta Iratxe Retolaza, Ander Lipus, Sara Fantova eta Janus Lester artista gonbidatuekin batera. Tailerrok lau ikastegi desberdinan egingo dira, Zientzia eta Teknologia Fakultatean, Hezkuntza Fakultatean, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean eta Arte Ederren Fakultatean, Leioan ere kulturaren asmoa biziberritzeko asmoz.

Informazioaren zabalkundeari dagokionez, webgunea eta sare sozialak gero eta dinamikoagoak dira eta bide horretan lanean jarraitu nahi dugu. Komunikazioaren alorrari beraz bultzada eman nahi zaio, zuzendaritza honen baitan antolatzen diren ekintzei ikusgarritasuna eman eta EHUK Kultura marka indartzeko asmoz. Horretarako,

2025-26 ikasturteari hasiera ematearekin batera, Kultura Eguna antolatu da Leioako Campusean, Bizkaiko Campuseko Ikasleen, Euskara eta Kulturako Zuzendaritzak ikasturte berrirako antolatu dituen ekintzen zabalpena egin (Sormen Ola tailerrak, antzerkia, erakusketak, hitzaldiak, etab.) eta Kultura Beken berri emateko. Ildo berean, EHU kultura unibertsitate osorako proiektu bateratu bat denaren irudia ere indartu nahi da, Campus ezberdinako zuzendaritzen arteko lankidetza eta Errektoreordetzaren koordinazioaren bitartez. Lehentasunetako bat da, beraz, barne lankidetza berriak sendotu eta zabaltzea. Honetarako guztirako, eta hurbileko programazio berritzairekin jarraitzea, ezinbestekoak dira gure talde teknikoaren ahaleginak, Nerea Aranguren eta Ainhoa de Ayalarenak hain zuzen.

3.2. Kultura programazioa (EHU kultura)

EHU Kultura-Bizkaia egindako lanaren azalpen labur horren ostean, egindako kultura ekintza eta proiektuak laburbiltzen ditugu jarraian, hurrenkera kronologikoan eta hiruhilekoetan:

- 2025eko urtariletiak martxora**

TAILERRAK

Sormen Ola tailerra. Gorputza eta mugimendua. Garazi Etxabururekin 2025/01/25

Sormen Ola tailerra. Olatz Gorrotxategirekin 2025/02/22

KONTZERTUAK

Concierto desorden. Podcastastaren grabazia. 2025/02/06

Amooma kontzertuan 2025/02/28

ZINEMA

Xiberoa kantuz loraturik. Txoriekin hizketan. Dokumentala 2025/02/07

Zinebi Express 2025/03/31

ERAKUSKETAK

BUSTURIA-HADRISKO erakusketa 2025/03/17- 2025/04/16

MHLI ikerketa taldearen erakusketa - Gerra Zibila 2025/03/17 – 2025/04/16

HITZALDIAK

Arrazakeriaren kontrako eguna 2025/03/23

EKITALDIAK

Ongietorri Errefuxiatuaren ekitaldia 25.03.2025

• **2025eko apiriletik uztailera**

KONTZETUAK

EHU Kultura Kontzertua – BENGO. 2025/04/03

Arrasti musikalak kontzertua Menchu Gal terrazan - ARIMA SOUL 2025/05/29

Arrasti musikalak kontzertua Menchu Gal terrazan - ESANEZIN 2025/06/04

ANTZERKIA


Hika Teatroa, Zorretan antzezlana 2025/05/09

HITZALDIAK

Mizgin Ronak idazle kurdua gurekin 2025/05/16

ERAKUSKETAK

8 EMAKUME. 8 ISTORIO. EGIA DESEROZO 1. 2025/07/08 - 2025/07/18



EHU

4.

ONGIZATE
ETA
JASANGARRITASUN
ZUZENDARITZA

4. ONGIZATE ETA JASANGARRITASUN ZUZENDARITZA

4.1. Helburu nagusiak

